



UDAL INFORMAZIOA | 2019KO ABUZTUA



Udaletxean lanean hasi ginela pare bat hilabete pasa ondotik, udal informazioa aitzakiatzat hartu nahi izan dugu herritarrei ordezkarri bakoitzak izanen ditugun arduren berri emateko. Aldi berean, herriarentzat eta herriarekin batera lan egiteko ilusioz gaudela erran nahi dizuegu, herritarrekin elkarlanean ari nahi dugula. Udal ireki bat sortu nahi dugu, eta horretarako herritar guztiak komisiotan edota plenoetan parte hartzera gonbidatuak zaudetela jakitea nahi dugu, denona den herria zaintzea dugu helburu nagusia, eta nahi dituzuen iradokizunak idatziz edo zuzuenean Herriko Etxera joz egin ditzakezue. Honela banatu ditugu ardurak:

- **DABID ITURRIA, ALKATEA:** Uraren Bailarak batzordeko eta Udalbiltzako ordezkarria eta ehiza batzordeko kidea.
- **LEIRE MITXELENA, BIGARREN ALKATEORDEA:** euskara eta gizarteko zinegotzia eta Gizarte Zerbitzuen eta Euskara Mankomunitateetako ordezkarria.
- **ENEKO SARRIAS, LEHENBIZIKO ALKATEORDEA:** hirigintzako zinegotzia. Osasun Kontseilua eta Animsarekin harremanetan egonen dena.
- **BEÑAT MITXELENA:** kultura eta kirolako zinegotzia. Cederna Garalur elkarteko ordezkarria eta ehiza batzordeko kidea.
- **IMANOL LUKANBIO:** mendi eta auzolanetako zinegotzia. UEMAko ordezkarria eta ehiza batzordeko kidea.
- **JOSEBA PIKABEA:** Komunikazioa eta hezkuntzako zinegotzia. Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitateko ordezkarria eta Eskola Kontseiluko, Pelle-Ttikiko eta liburutegiko ordezkarria.
- **MARKEL JORAJURIA:** Ogasuneko zinegotzia eta ingurugiroaz, baserrigintzaz eta turismoaz arduratuko dena. Ehiza Batzordeko kidea.

AUZOLANA

Auzolanaren garrantziaz jabetuta, ahalik eta hobekien antolatzeke, lau baserri auzoetan eta herrian bina ordezkarri izendatu ditugu. Hauek izanen dira:

- **AIENTSA:** Imanol Lukanbio eta Fernando Lukanbio.
- **AZKILARREA:** Mikel Altzuri eta Antonio Bergara.
- **BORDALARREA:** Teodoro Pikabea eta Igor Ugalde.

- **EGUZKIALDEA:** Dabid Iturria eta Markel Jorajuria.
- **HERRIA:** Gotzon Arenas eta Jabier Mari Etxebeste.

Auzolana herrian bizi garenok egin behar dugula ere oroitarazi nahi dizuegu, hauek izan ezik: 18 urtetik beheetikoek eta 55 urtetik goitikoek ez dute egin beharrik; ezindu fisiko, psikiko eta zentzumenezkoek ere ez, ezta preso daudenek ere.



TRASTE HAUNDIAK NORA?

Arantzan, Bortzirietako bertze herrietan bezala, trasteak biltzeko debaldeko telefono zenbaki bat dugu erabilgarri (672 04 57 34 zenbakira deitu behar da!). Zerbitzu hori astelehenetik ortziralerara 08:00etatik 14:00etara izaten da eta telefono horretarako deituz gero, etxera bertara hurbiltzen dira trasteak biltzera. Zabor eta tresna handiak ez dira hondakinen edukiontziak dauden tokietara atera behar, hori baino praktikoagoa eta ero-soagoa da zerbitzua, etxera zuzenean jasotzera etortzen baitira debalde.

Hortaz, denon artean eginahala egin dezagun gure herri eta baserri auzoetako zabor guneak, nahiz inguruak garbi mantentzeko, holako argazkiak errepikatzen ez badira naturak eta inguruak eskertuko digu!



KALTETUTAKOEI LAGUNTZA

Joan den uztailaren 8an izandako euri-erauntsien ondorioz, kalte handiak sortu ziren Nafarroa erdialdeko Tafalla, Erriberri, Beire, Pitillas eta bertze hainbat herritan. Etxebizitzak, garajeak eta komertzioak hondatzeaz gain, oinarrizko azpiegiturak ere kaltetuak izan ziren, baita bideak eta nekazaritzako lurrak ere. Hango herritarrek kalte ekonomiko handiei egin beharko diete aitzin eta denon laguntza beharko dute. Zuk ere zure ekarpena egin nahi baduzu, Tafalla eta Erriberriko udalek egokitu dituzten kontu hauetan egiten ahal duzu:

***TAFALLAKO UDALA:** Caixa ES85 2100 3696 6122 1015
1810 / Rural Kutxa ES94 3008 0044 4140 3886 8321 /
Laboral Kutxa ES16 3035 0114 19 114004 4394.

***ERRIBERRIKO UDALA:** Caixa ES 98 2100 5012 1002
0009 2687.

Arantzako Udalak ere bere laguntza emanen du, inguruko bertze hainbat udalek bezala.

HAIZEA ZILUAGA LARREATEGI AUZPIPETUA

Irailaren 16tik aitzinera Haizea Ziluaga Larreategi herritarra epaituko dute Madrilen, Auzitegi Nazionalean, bertze 46 euskal herritarrekin batera. Euskal preso politikoek eskubideen alde lan egiteagatik epaituko dituzte.

Lerro hauen bitartez, herritar talde batek irailaren 7an epaiketa hori salatzen mobilizazio eguna antolatu duela jakinarazi nahi dizuegu. Udaletik ere epaiketa gaitzesten dugunez, egun horretarako prestatu dituzten ekitaldietan parte hartzera animatu nahi zaituztegu.

Gisa berean, irailaren 14an, epaiketa hasi baino bi egun lehenagotik, Bilbon eginen den manifestazioan parte hartzeko deia ere egin nahi dizuegu.



APARKATZEKO ARAZOAK

Tarteka, herrian aparkatzeko arazoak izaten direla ikusita, herrian bizi zaretenei ahal den neurrian herriko zereginak kotxea erabili gabe egiteko eskatu nahi dizuegu, hartara, aparkalekutik aparte herrian aparkatzeko leku gehiago izanen baita. Gainera, gisa horretara, herriko komertzioetara heldu diren hornitzaile zein kamioiek arazorik gabe euren lana egiten ahal dute. Horrekin batera, oroitarazi nahi dizuegu udako asteburuetan Martixenetik Kaltxerako noranzkoan ezin dela kotxez pasa eta Goienburun barna pasatu behar dela.

Neurri horiekin oinezkoen eskubideak bermatu nahi ditugu eta gisa berean, kutsadura murriztu eta herriko ostatuek antolatutako ekimenak



–ortziraletako pintxo-potea, adibidez– bultzatu nahi ditugu.

ONGI PASA BESTAK!

Udal informazio honekin batera, herriko beste-tako egitaraua ere hartu izanen duzue. Bestak abuztuaren 14tik 17ra izanen dira eta bertze urte batez, herriko talde eta eragileekin elkarlanean, haur, gazte eta helduetan pentsatuz ahalik eta egitarau osatuena antolatzen saiatu gara: musika, kantak, dantzak, bertsoak, herri-bazkaria, pilota partidak, herri-kirol saioa, haurrentzako ekitaldiak... Denetarik izanen da aranztarrok eta bisitariek ere gozatzeko aukera izan dezagun.

Arrazoi bategatik edo bertzeagatik herrian ez daudenak ere gogoan izan nahi ditugu. Tartean, Mikel Karrera Sarobe herriko preso politikoa. Hain zuzen, berari elkartasuna adierazteko afaria eginen da abuztuaren 17an Ekaitza Elkartean. Herritarren babesa beretzat garrantzitsua denez, ea zu ere hantxe izaten zaren!

DENOK ELKARREKIN ETA ELKAR ERRESPETATUZ ONGI PASA DITZAGUN BESTAK!



